

Desiraren autodeterminazioa

Javier de Rivera

Saioa Olmoren *EROMEKANIKA. Makineria sozialaren
erotika* liburuan argitaratuta. www.ideatomics.com
ISBN 978-84-608-4142-5

Teknikak eta teknologiak

Teknika emaitza bat lortzeko prozedura edo abilezia da. Ikaste prozesuaren bitartez barneratutako (gorputzean sartutako) ezagutza. Subjektu gisa lagundu eta sortu egiten gaitu, zeinek munduan bere egitea adierazten baitu.

Teknologia teknikaren sistematizazioa da, hura kanporatzea ahalbidetzen duena, mekanismoetan, makinerian edo protokoloetan objektibatzea. Horrekiko elkarrerraginean, subjektua banaturik dago. Baita subjektu gisa ere moldatzen gaitu baina modu exogenoan, gure ekintza-desira adierazteko, gure buruak egokitu behar ditugun logikak eta ereduak eskainiz.

Teknika artisauarena da egunerokotasunaren egilea den heinean, teknologiak ekoizpen industrialak artikulatzen duen bitartean. Prozeduren objektibatzeak diseinuaren lan intelek-

tuala eta eskuzkoa-burutzailea den lana banatzen du. Horrela irekitzen da langilearen alienaziorako bidea, inposatzen zaion makineriaren logikan subsumituta.

Lanaren antolakuntza «zientifikoak» harreman protokoloak, portaera arauak eta sistema burokratikoak eskatzen ditu, langilea ekoizpen makinerian ezartzearen erresistentzia organikoak apurtuko dituztenak. Ondoren kontsumoaren antolakuntza «zientifikoak», marketinak, masa-ekoizpenaren emaitzak desiratzen irakatsiko digu. Horrela ixten da ekoizpen eta kontsumo alienatuaren zirkulua.

Eros... izan, partaide izan eta eduki

Eros, maitasun fisikoaren, gorputzaren maitasunaren eta sexu-maitasunaren jainkoa da. Maitasun era zehatza. Ez da ama baten maitasuna, edo aberriarekiko maitasuna, edo artearekikoa. Ordea, maitasun ororen atzean badago pultsio erotikoa, erakartze orok badu bere osagai fisikoa. Maitatuaren hurbiltasunarekin —fisikoa edota irudimenezkoa— datorkigun zirrara leuna. Libidoa ekintzara daraman motibazio inkontziente gisa, ez halabeharrez «sexualera», ohikoa den zentzuan, baina beti zirraragarria den «objektu» bati begira.

Boterearen erotika, gizarte-harremanetan erotika ulertzeko modurik ohikoena da. Boteretsuarengandik, bere ekintzarako

gaitasun indartsuak kitzikatzen gaitu, besteak ekintzara eramateko duen «libido» metaketa. Baliabideak dituelako obeditzen zaio, edo batzuetan seduzitzen, eta bere erretorika eta uste sendoarekin liluratzen dakielako soilik. Besteak gu kontrolatu eta agintzeko duen desiragatik utziak izateak, partaide izatearen plazera eskaintzen digu, norbaitentzat baliogarria izatea, erabilia izateko soilik bada ere.

Boteretsuak garrantzitsuak garela sentiarazten gaitu bere zerbitzura jar gaitezela eskatzen digunean, beragatik gudara joan gaitezela, beragatik ahalegina egin dezagula. Bere boterearen errepresentazio elokuentea zabaltzen du, guztia ahal duenaren desiretan gure desirak proiektatu ahal izateko. Menpean dituenen ekintzarako desirak biltzen dituelako kitzikatzen gaitu boteretsuak. Mirestuz eta borondatez menpean jarritz bere arrakastaren partaideak izatearen ustea dugu eta baita «aukeratutakoak» izatea pixka bat ere.

Ordea, boterearen erakargarritasunaz harago, harreman sozial guztiek badute beren elementu erotikoa. Izate bakoitzari egokitzen zaio botere libidinalaren zati bat, besteekin partekatu eta sortzeko. Antolakuntza sozialaren prozesuan zati hauek botere fluxuen arabera zabaltzen dira... metatze libidinalen inguruan egiten dute bira. Sozialaren teknologiek desira kolektiboen kudeaketa horretan egiten dute lan.

Haragiaren boterea

Haragia altzairua baino gogorragoa da. Horrela erakusten dio Thulsa Doomek, Sugea Gurtzearen liderrak, Konan Barbaroari. Adimenak izan eta horiek domeinatzeak edozein arma izateak baino boteretsuago egiten zaitu. Armak pertsonak eragiten dituzte, zeintzuren gorputzek zirrara sortzen dieten mekanismo erotikoei erantzuten dieten. Horiek nahi eran eta nahi den distantziatik izan daitezke eraginduak erotika sozialaren makromakineria kontrolatzen dutenengatik. Thulsak egin bezala, haren ero-boterearen erakusketa gisa, keinu baten bidez amildegitik behera jauzi egin dezan agintzen dio neska gazte bati.

Neska gaztea botere erotikoarekin oinarritzko baliabidea da gizonezkoen gizartean, desiragarria den horren ikur gisa. Tiqquneko Neskatoaren teoriak kontsumoarekin lotuta agertzen den desira hutsala kritikatu nahi du. Neskatoak berak, botere materialari bere burua seduzitzen utzi dio, eta bere erakargarritasuna eskaini. Botere materialak, atraktiboa aktibo bat gehiago bezala artikulatzen du bere seduzio-boterea handitzeko.

Neskatoaren teoria gizonezkoei ere aplikagarria bazaie ere, formalki emakumea identifikatzen du boterearen menpekotasun eredu gisa. Nolabait objektu-egindako-emakume hori alienatze eromekanismoen erantzule egiten duela dirudi, sedukzio sistemaren papera diluituz, bai eta kontsumitzera (ikuskizun

edo erreal gisara) bideratuak diren horiek ere. Besteak subjektu objektibatzaile gisa aritu behar du, gu erabiliz edo guri begiratuz modu jakin batean.

Kontua da kanpoko gurtzaren desira gatibu hori gainditzea. *Desira fetitxistak* objektuetan bilatzera garamatza subjektuengan bakarrik aurki daitekeena. Honek, bestea, irudi eta mekanoaren pieza bihurtu nahi izatera bideratzen gaitu eta horrela, gure onarpen, partaide izatearen eta sexualitate-desira asetzen ahalegintzen gara.

Sare sozialen multi-ikuskizuna

Sare sozialen multi-ikuskizunean guztiok bihurtzen gara desiragarria denaren ilusioen, errepresentazioen ekoizle eta kontsumitzaile. Hedabideak miniaturazko famatuengan bihurtu gaituzen eskatzen digu, edo Neskatoarengan, irudiaz, joerez eta besteen arreta erakartzeaz arduratua... baina ezer ez sakonago, baliotsuak sentitzea baino.

Sareek «azoka libidinal» modu berria artikulatzen dute, sexu eta genero dinamiketarik salbu ez dagoena, non desirak eta irudiak trukatu eta kontsumitzen diren. Kudeatzaileen eskutan, hau da, Thulsa berrien eskutan, «balorea sortzeko» eraikitako ilusio-azoka.

Merkatu sareek arrakasta eskainiz otzantzen gaituzte, sortu/ kontsumitzen dugun edukietatik at, irudi fisikoan zein birtua-lean etengabeko inbertsio-praktiketarako sumisioaren truke.

Desiraren autodeterminazioa

Seduzitzea kanpotik gidatzea da, era subliminalean, esanahiak sartzea gorputz huts batean («adierazle huts» batean), arrotza zaion desira bat berea balitz bezala adierazteko. Arima hutsa, erakunde-sumisioan kitzikatzen da, honek bibratzeko uzten dizkion edukinez.

Alderantziz, desiraren autodeterminazioak sedukzioaren erakunde makineriek metatutako karga libidinala desjabetzea ahalbidetzen du, eta desiragarria denaren moduak birdefinitzea. Hori izango litzateke giltzarria «libido» bitartez erregulatutako merkatuak bizirik eta mugimenduan dauden elkarreragite jolasengatik ordezkatzaren diren egoerak sortzeko, subjektuei beren «libidoaren» autonomia itzuliz, beren esanahi berezkoak sortzeko ahalmena.

Erreferentziak:

MILIUS, John. *Conan el Bárbaro*. 1982. [linean]. https://www.youtube.com/watch?feature=player_detailpage&v=IGzOnbr4K2s#t=4243 (1:10:45 Eszena)

TIQQUN. *Primeros Materiales Para Una Teoría De La Jovencita*. 1. ed. Madrid: Acuarela Libros y A. Machado Libros, 2012. ISBN 978-84-7774-209-8.

Javier de Rivera soziologoa da, ikuspegi kritiko batetik teknologia berriak eta gizarte-teknologiak ikertzen aditua. Cibersomosaguas-eko (UCM) ikerketa-taldeko kidea da, Revista Teknokultura-n (UCM) editorea eta irakaslea Comunicación, Cultura y Ciudadanía Digital (URJC - MediaLab, Madrid) Masterrean. <http://sociologiayredessociales.com/>



Artikulu hau aipatzeko:

DE RIVERA, Javier. "Desiraren autodeterminazioa". OLMO, Saioa. *EROMEKANIKA. Makineria sozialaren erotika*. 1ª ed. Bilbo: Ideatomics, 2016. 146-152 or. ISBN 978-84-608-4142-5